



“BERMEO, PERTSONA NAGUSIEKAZ HERRI LAGUNKOIA”

EKINTZA PLANA 2018-2020



BIZITZEN
FUNDAZIOA



AURKIBIDEA

1. SARRERA

- 1.1. AURREKARIAK
- 1.2. METODOLOGIA

2. EKINTZA PLANA

- I. EREMUA: AIRE ZABALEKO ESPAZIOAK ETA ERAIKINAK
- II . EREMUA: GARRAIOA
- III. EREMUA: ETXEBIZITZA
- IV. EREMUA: SAREAK ETA GIZARTE-LAGUNTZA
- V. EREMUA: ENPLEGUA ETA PARTAIDETZA
- VI. EREMUA: ERRESPECTUA ETA GIZARTERATZEA
- VII. EREMUA: KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA
- VIII. EREMUA: GIZARTE ETA OSASUN ZERBITZUAK

1. SARRERA

1.1. AURREKARIAK

Pertsona nagusiakaz lagunkoi izatearen mugimendua Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) bultzatzuta sortu zan 2005 urtean.

Proiektu hau zahartze aktiboaren paradigmak barne hartzen duen teorian oinarritzen da. Asmoa da, herriak hobetzea, zahartzen joan ahala gure bizimoduagaz aurrera jarraitu daigun. Pertsona nagusiekaz lagunkoia dan herriak bere politika, zerbitzu, ingurune eta egiturak hobetu behar ditu pertsonen zahartze aktiboa errazteko.

Azken batean, pertsona nagusien bizi kalidadea hobetu gura da, eta ondorioz, baita herritar guztiona ere.

2004.urtetik Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuak zahartze aktiboa sustatzen duen programa ezbardinak antolatu izan ditu: Bizitasunez bizi hitzaldiak, Gorputza Martxan, Burua Martxan eta Dementzia fase arinean dutenentzat Psikoestimulazio tailerra, besteak beste.

Herri lagunkoia proiektuarekin aurrerapausu bat emon nahi izan da sustatze horretan eta horregaitik Bermeoko Udalak bere konpromisua adierazi du. 2016ko uztailaren 20an Udalak Dublingo adierazpena eta OMEko hiri aditsuak sarera atxikitzea onartu zuen osoko bilkuran. Azaroaren 23an Euskadi lagunkoia sarean sartu izana formalizatu zan eta honekin batera OMEko hiri adeitsuak sarera atxikitzeko tramiteak hasi ziran.

1.2. METODOLOGIA

Herri lagunkoia proiektuak lau fase jasotzen ditu bere metodologian: plangintza, plana gauzatzea, egindako prozesuen ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza.

2016 urtean proiektuaren lehen etapa gauzatu zan, hau da, Bermeoko lagunkoitasun-mailaren diagnostikoa egin zan.

2017an, plangintza faseari jarraituz, **lagunkoitasun plana prestatu** da.

Proiektuaren oinarri metodologikoa parte-hartze prozesu baten datza. Prozesu horretan pertsona nagusi, senitarteko zaintzaile eta udaleko teknikariek parte hartu dute. Parte hartzean oinarritutako metodologia hau diagnostiko fasean hasi zan baina Ekintza plana eta planaren gauzatzean ere metodologia bardina jarraituko da.

Ekintza plan honek 50 jarduera batzen ditu. Jarduerak, egitura aldetik, OMEk Vancouverreko protokoloan ezarritako zortzi eremuen arabera antolatzen dira. Hurrengo taulan eremu bakoitzeko jarduera kopurua ikusten da.

Jarduera kopurua zortzi eremuen arabera	
EREMUAK	JARDUERA KOPURUA
Aire zabaleko guneak eta eraikinak	12
Garraioa	9
Etxebizitza	1
Sareak eta Gizarte-laguntza	4
Enplegua eta Partaidetza	5
Errespetua eta Gizarteratzea	3
Komunikazioa eta Informazioa	6
Gizarte eta Osasun Zerbitzuak	10

“Bermeo, persona nagusiekaz herri lagunkoia” ekintza plana, hurrengo 3 urteetan garatu beharreko jarduerak gidatuko duen dokumentu oinarria izango da.

2. EKINTZA PLANA

I. EREMUA: AIRE ZABALEKO GUNEA ETAK ERAIKINAK

HELBURUAK

- Herri atsegina izatea.
- Bermeoko Irisgarritasun Plana garatzea.
- Pertsona nagusientzat herri segurua izatea.

1.1. ILDOA. INGURUNE GARBI ETAK ATSEGINAK IZATEKO NEURRIAK

- ❖ 1.1.1. Jarduera: Herria atsegina izatea bermatzeko kontrolak egitea

Deskribapena	Udaltzaingoak zaintza bereziak egitea. Sastarrak dagozkien edukiontzietan daudela ikuskatzeko, txakurren kakak sahiesteko eta aire zabaleko gunek eta herri-altzariak zaintzen direla bermatzeko zaintzak.		
Justifikazioa	Sarri askotan herritarrak dira aire zabaleko gunek eta herri-altzariak garbi mantendu eta zaintzen ez dutenak.		
Arduraduna	Udaltzaingo buruzagia		
Inplikatutako udal sailak	Udaltzaingoa		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Ez		
Jardueraren adierazleak	Elkarbizitzarako araudia betetzen dan ikusteko kontrolak egitea.		
Betetze maila			

1.2. ILDOA. IRISGARRITASUN NEURRIAK

❖ 1.2.1. Jarduera: Bermeoko Irisgarritasun Plana "lagunkoia" dan ziurtatu

Deskribapena	<p>Pertsona nagusien kontsulta organo bat sortu. Udaleko teknikariek, irisgarritasun planarekin jarraituz, burutuko diren eskuhartzeak azaldu eta pertsona nagusien ikuspegia batzea litzateke helbura.</p> <p>Kontsulta organo hori 2018an sortuko da eta urte amaieran positiboki baloratu ezker, hurrengo urteetan ere jarraituko luke.</p>		
Justifikazioa	<p>Diagnostiko fasean ikusi zan bezala, gehienetan planak dioena eta pertsona nagusien iritzia bat datoz, baina beste batzutan beste ikuspuntu bat emoten dute.</p> <p>Hori dala eta, garrantzitsua da Bermeoko Irisgarritasun Plana berrikustea pertsona nagusien iritzia kontutan hartuz.</p>		
Arduraduna	Urigintza Zuzendaritza		
Inplikaturako udal sailak	Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza			
Jardueraren adierazleak	Pertsona nagusien kontseilua izatea		
Betetze maila			

1.3. ILDOA.INGURUNE SEGURUAK SUSTATZEKO NEURRIAK

❖ 1.3.1. Jarduera: Oztopo arkitektonikoak kendu

Deskribapena	Bermeoko Irisgarritasun Planak irizpide "lagunkoiak" betetzen duala ziurtatuta, Planarekin jarraitu.		
Justifikazioa	Azken urteotan kendu dira oztopo arkitektoniko batzuk baina oraindik ere oztopo asko gelditzen dira. Lehentasunak erabakitzeko orduan, pertsona nagusiak gehien ibiltzen diren inguruak kontutan hartuko dira.		
Arduraduna	Urigintza Zuzendaritza		
Inplikaturako udal sailak	Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Zerbitzu Saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Bai. Batez ere pertsona nagusiak gehien ibiltzen diren inguruetan. Esate baterako Nagusien elkarteko sarreran arrapala jarri edo Santa Eufemia eliza inguruko mutiloi (bolak) kendu.		
Jardueraren adierazleak	Espazio publikoen irisgarritasuna hobetzeko jarduerak		
Betetze maila			

❖ 1.3.2. Jarduera: Konpontze-lanak azkar hastea

Deskribapena	<p>Arriskua suposatzen duten konpontze-lanak azkar hastea.</p> <p>Kasu batzutan beste konponbide bat hartzea proposatzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Musika eskola ondoko eskillaretakeko argia batzuetan ez dabil. Argiaz aparte, eskailerak beste kolore batez ere margozteaz aztertuko da. ✓ Ondarraburu aldatzeko horma zaharra kentzeko (Urigintza Saila) Jabearekin kontaktuan jarriko da. 		
Justifikazioa	<p>Herriko gune batzuk arriskutsuak dirala eta azkar konpontzea proposatzen da. Kasu batzutan jausteko arriskua sopsatzen dutelako eta beste kasu batzuetan herritarren segurtasuna zaintzeko arrazoiekaitik.</p>		
Arduraduna	Zerbitzuetako teknikaria		
Inplikaturako udal sailak	Zerbitzu Saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	<p>Bai, batez ere:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Musika eskola ondoko eskilarak ✓ Ondarraburu aldatzeko horma 		
Jardueraren adierazleak	<p>Mantentze-lanen itxaron denbora murriztea</p> <p>Musika eskola ondoko eskilara eta Ondarraburu aldatzeko horman esku-hartze kopurua</p>		
Betetze maila			

❖ 1.3.3. Jarduera: Zorua hobetzea

Deskribapena	Zorua kalitatea eta diseinua hobetzea.		
Justifikazioa	Parkeetako zoruei dagokienez, mugikortasun arazoak dituztenentzat Enparantza batzuetako zoruak ez dira egokiak, jausteko arriskua suposatzen dutelako. Bestalde, kale batzuetan aingira-belarra sortzen da labankorra izanik.		
Arduraduna	Urigintza Zuzendaritza		
Inplikaturako udal sailak	Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	<p>Bai.</p> <p>Parkeetako zoruei dagokienez, mugikortasun arazoak dituztenentzat Gonzalo Nardiz Enparantza, Arana Goiri tar Sabinen Enparantza eta Lamerako zoruak ez dira egokiak.</p> <p>Gonzalo Nardiz Enparantzaren zoladura altxatuta dago, zoladura osoa aldatu beharko litzateke.</p> <p>Arana Goiri tar Sabinen Enparantzaren zoladura ez da egokia baina era berean zoladura guztia kentzea pena izango litzateke dukan edertasunagaitik. Hori dala eta Enparantza hau zeharkatzeko ibilbide lau bat jartzea proposatzen da, burbildun aulki baten zabalerako ibilbide bat.</p> <p>Lamerako zoruari dagokionez, baldosa batzuk altxatu egiten dira. Zerbitzu Siletik bideratuko dira konponketak 2018an.</p> <p>Bestalde, kale batzuetan sortzen dan aingira-belarra kentzea proposatzen da. Batez ere Bidebarrieta eta Ertzilla, 6-8 inguruan. Zerbitzu sailaren ardura izanik hidrogarbigailuaren plangintzan sartuta dago.</p>		
Jardueraren adierazleak	Zoruen kalitatea eta diseinuan hobekuntzak		
Betetze maila			

❖ 1.3.4. Jarduera: Espaloiak hobetzea

Deskribapena	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Espaloiaren kalitatea hobetzea. ✓ Beheratuta dauden espaloi batzuen inklinazio mailaren azterketa. ✓ Espaloiaren kutxatilletan labankorrak ez diren tapak jartzea. 		
Justifikazioa	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Espaloi batzuk ez dira egokiak irregularrak diralako. ✓ Bestalde, mugikortasun arazoak dituzten pertsona nagusientzat, beheratuta dauden espaloi batzuek inklinazio maila handiegia dute. ✓ Beheratuta dauden espaloi batzuek ez dira errepide parera ondo gelditzen edo ez dira erosoak jaisterakoan. ✓ Espaloiaren dauden kutxatilletako tapa batzuk urbanizatuta daude baina beste batzuk labankorrak dira. 		
Arduraduna	Urigintza Zuzendaritza		
Inplikaturako udal sailak	Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Zerbitzu Saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	<p>Bai.</p> <p>Espaloi batzuk ez dira egokiak irregularrak diralako, batez ere Sancti Spiritus zaharren egoitzaren inguruan, Alde Zaharrean eta Askatasun Bidea, 35 inguruan.</p> <p>Bestalde, mugikortasun arazoak dituztenentzat, beheratuta dauden espaloi batzuek inklinazio maila handiegia dute. Batez ere, Askatasun Bidea, 1 eta 3.</p> <p>Beheratuta dauden espaloi batzuek ez dira errepide parera ondo gelditzen edo ez dira erosoak jaisterakoan. Esate baterako, Zubiaur tar kepa 12 (lamera txiki)ko espaloi</p>		

	beheratua ez da ondo gelditzen.
Jardueraren adierazleak	Espaloiak hobetzeko neurriak
Betetze maila	

❖ 1.3.5. Jarduera: Argitasuna hobetzea

Deskribapena	Herriko argiteri osoa barritzuko da, kalez kale, puntuz puntu aztertuz argi mailak.		
Justifikazioa	Pertsona nagusien ustez ez dago behar adina argi.		
Arduraduna	Zerbitzuetako teknikaria		
Inplikaturako udal sailak	Zerbitzu Saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	<p>Bai.</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Batez ere Alde Zaharra eta Talan. ✓ Pertsona nagusiak iluntzean sarri joaten diren lekuak ere kontutan hartuko dira. Adibidez Santa Eufemiako kanpoaldean argia ez da egokia. Behetik gora doan argiak itsutu egiten du eta inguruan ere ez dago argi punturik. 2018an Santa Eufemia inguruan argi puntu barri bat jarriko da. ✓ Gune arriskutsuak ere kontutan hartuko dira. Adibidez, Benito Barruetako eskilarak eta Etxebarria tar Kresentziko eskilarak. 		
Jardueraren adierazleak	Argiteria barritzatu izana		
Betetze maila			

❖ 1.3.6. Jarduera: Herriko zainketa izatea

Deskribapena	Herriko oinezko patrullak mantentzea.		
Justifikazioa	Pertsona nagusiei oinezko patrullak segurtasun pertzepzioa emoten deusie.		
Arduraduna	Udaltzaingo buruzagia		
Inplikaturako udal sailak	Udaltzaingoa		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Ez.		
Jardueraren adierazleak	Udaltzainen oinezko patrullak izatea.		
Betetze maila			

1.4. ILDOA. ESPAZIO PUBLIKOETAKO ELEMENTUETAN HOBEKUNTZAK

❖ 1.4.1. Jarduera: Parkeetako gimnasia egiteko makinak azterketa

Deskribapena	Espazio publikoan ariketak egiteko makinak egokitu		
Justifikazioa	<p>Eserlekuak ez dira egokiak gimnasia egiteko makinetan ibiltzeko. Eserlekuen bizkarraldea oso inklinatuta dago, postura desegoki batetara behartuz.</p> <p>Bestalde, eserlekutik pedalera doan distantzia aukera ezberdinak ezarri behar dira. Emakumeen batz besteko altuera txikiagoa da eta distantzia txikiagoa behar bait dute.</p> <p>Lameran edo Erreten Lameran (umeentzako jolasgune barriaren inguruan) gimnasia egiteko makina gehiago ezartzea proposatzen da. Pertsona nagusien iritzia kontutan hartuko litzateke kokaleku diskretu bat aurkitzeko.</p>		
Arduraduna	Obra Zuzendaritza		
Inplikaturako udal sailak	Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Zerbitzu saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Bai. Erreten Lamera, Lamera eta Talan.		
Jardueraren adierazleak	Espazio publikoan ariketak egiteko makinetan hobekuntzak		
Betetze maila			

❖ 1.4.2. Jarduera: Atsedena hartzeko leku gehiago jartzea

Deskribapena	Eserleku gehiago jarri eta eserlekuen diseinua hobetu.		
Justifikazioa	<p>Irisgarritasun Planean agertzen diren herri-altzari guztietatik eserleku eta bankuak dira aipatu direnak, lehentasun handia emonez. Ez horrenbeste beso-euskarria edukitzea edo ez, baizik eta egurrezkoa izatea, egoera onean egotea, zona batzuetan gehiago jartzea, edota jartzen diranak jesarteko zabalera egokia edukitzea.</p> <p>Eserleku barriak ezartzerakoan, kokapen egokiena aukeratzeko, pertsona nagusien iritzia batuko da, zein lekutan gehien ibiltzen diren edo pertsona nagusi asko bizi diren guneak kontutan hartuz.</p>		
Arduraduna	Obra Zuzendaritza eta Zerbitzuetako teknikaria		
Inplikaturako udal sailak	Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila (obra barrietan). Zerbitzu Saila (dagozanak aldatzeko)		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Bai. Eserleku barriak jarri esate baterako, Martin Deuna 7ko pasealekutik edo Ataldeko jolasleku barrian. Ataldeko jolasleku barrian 2018an jarriko dira.		
Jardueraren adierazleak	Eserleku kopurua areagotzea eta diseinuan hobekuntzak		
Betetze maila			

❖ 1.4.3. Jarduera: Lamerako komun publikoa hobetzea

Deskribapena	Lamerako komun publikoaren bentilazioa hobetzea		
Justifikazioa	Komun publikoak nahiko ondo baloratuta daude, Lamerakoa izan ezik. Lamerako komun publikoa egunean bi aldiz garbitu arren, usain txarra egoten da.		
Arduraduna	Zerbitzuetako teknikaria		
Inplikaturako udal sailak	Zerbitzu Saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Bai. Lameran		
Jardueraren adierazleak	Lamerako komun publikoaren bentilazioa hobetzeko neurriak.		
Betetze maila			

1.5. ILDOA. ERAIKIN PUBLIKOEN IRISGARRITASUNA HOBETZEKO NEURRIAK

❖ 1.5.1. Jarduera: Eraikin publikoen irisgarritasuna

Deskribapena	Bermeoko Irisgarritasun Plana osatzen duen Eraikin Publikoen Planarekin jarraitzea.		
Justifikazioa	Eraikin batzuetan ez dago igogailurik. Beste eraikin batzuetan sartzeko eskilarak egon arren badago beste sarrera irisgarriago bat. Baina kasu honeetan herritar askok ez dute aukera hori ezagutzen.		
Arduraduna	Obra Zuzendaritza		
Inplikaturako udal sailak	Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Zerbitzu saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Bai. Musika Eskolan ez dago igogailurik. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat Intxausti, 2ko eraikinera eta Nestor Basterretxea aretora sartzeko beste sarrera irisgarriago bat dago baina panel informatibo bat falta da.		
Jardueraren adierazleak	Eraikin publikoen irisgarritasuna hobetzeko jarduerak		
Betetze maila			

II. EREMUA: GARRAIOA

HELBURUAK

- Garraio publikoa irigarria izatea.
- Oinezko eta garraiobideen arteko bizikidetza egokia izatea.
- Mugikortasun segurua izatea.
- Bermeoko "Irisgarritasun Plana" garatzea.

2.1.ILDOA. SEGURTASUNA HOBETZEKO NEURRIAK

- ❖ 2.1.1. Jarduera: Mugikortasun segurua sustatzeko herritarrak inplikatzea

Deskribapena	Herritar eta udaltzaingoaren artean topaketa bat antolatuko da. Topaketa honetan, herritarren kezkek argituko dira eta kontzientziazioa lantzeko balioko du.		
Justifikazioa	Batzutan autoak ez dira abiadura egokian ibiltzen, bide seinaleak ez dira errespetatzen (ez gidariek ez oinezkoek), autoekin espaloiak okupatzen dira.		
Arduraduna	Udaltzaingo buruzagia		
Inplikatutako udal sailak	Udaltzaingoa		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Ez		
Jardueraren adierazleak	Herritar eta udaltzaingoaren arteko topaketa izatea		
Betetze maila			

❖ 2.1.2. Jarduera: Pertsonen laguntza ematea

Deskribapena	Babesgabatasun, desorientatua edo jausi diren pertsonak aurkitu ondoren, beharrezkoak diren gestioak egitea.		
Justifikazioa	Gero eta gehiago dira kalean jausi diren pertsona nagusiak aurkitzea.		
Arduraduna	Udaltzaingo buruzagia		
Inplikaturako udal sailak	Udaltzaingoa		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Ez		
Jardueraren adierazleak	Esku-hartze kopurua		
Betetze maila			

2.2.ILDOA. GARRAIO LAGUNKOIA

❖ 2.2.1. Jarduera: Bermibus autobusa hobetzea

Deskribapena	Autobusa berak egin beharko leuken hobekuntzei buruzko dokumentu bat sortu		
Justifikazioa	Irisgarritasun planaren arabera ez da aurreikusten autobusa bera hobetzeko neuririk. Hala ere autobus barruan eskilarak daude. Hori dala eta autobusa beraren hobekuntzak batzen dituen dokumentu bat sortuko da etorkizunean autobus barriak hobekuntza hauek betetzeko.		
Arduraduna	Zerbitzuko zuzendaria		
Inplikaturako udal sailak	Zerbitzu Saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza			
Jardueraren adierazleak	Bermibus autobusa bera irisgarriagoa izateko hobekuntzak batzen dituen dokumentu bat sortu.		
Betetze maila			

❖ 2.2.2. Jarduera: Bermibus geltokiak areagotzea puntu estrategikoetan

Deskribapena	Tren geltokian bermibus geltokia jartzea.		
Justifikazioa	Trena eta Bermibusaren arteko lotura hobetzeko Tren geltoki inguruan Bermibus geltokia jartzea proposatzen da.		
Arduraduna	Obra zuzendaria		
Inplikaturako udal sailak	Zerbitzu Saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Bai. Tren geltoki inguruan.		
Jardueraren adierazleak	Geltokia jartzea.		
Betetze maila			

❖ 2.2.3. Jarduera: Bermibus geltokiak babestuta egotea

Deskribapena	Ahal diren geltokietan markesinak jartzea.		
Justifikazioa	Espaloian oztopo izan barik jarri ahal diren geltokietan markesinak jartzea proposatzen da. Horretarako, lorategi eta antzekoei lekua kenduz. Markesinetako bankuak jartzerakoan altuera egokia izatea kontutan hartuko da.		
Arduraduna	Zerbitzuetako teknikaria		
Inplikaturako udal sailak	Zerbitzu Saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Bai. Kanposantuan, Txibitxiaga, Gonzalo tar Nardiz, Tala.		
Jardueraren adierazleak	Geltokiak babestuta egoteko hobekuntzak		
Betetze maila			

2.3.ILDOA. MUGIKORTASUNA HOBETZEKO NEURRIAK

❖ 2.3.1. Jarduera: Bermibus geltokietako mugikortasuna hobetzea

Deskribapena	Geltokietan modu seguru eta eroso batean igo edo jaisteko hobekuntzak egingo dira.		
Justifikazioa	Bermibuseko arrapala jaisteko beharrezko dagoenean, espaloirik ez badago arrapala bere gainean jartzeko, ezin da modu seguru eta eroso batean igo edo jaitsi. Horregaitik espaloirik ez duten geltokietan, espaloiak eraikitzea komenigarria ikusten da. San Juan Portaleko kasuan neurri hori hartu aurretik, Anbulategi sarreran bertan gelditzea probatuko da		
Arduraduna	Zerbitzuetako teknikaria		
Inplikaturako udal sailak	Zerbitzu saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Bai. Batez ere Anbulategi inguruan.		
Jardueraren adierazleak	Geltokietako mugikortasuna hobetzeko jarduerak.		
Betetze maila			

❖ 2.3.2. Jarduera: Zebra bideen kokapena hobetzea

Deskribapena	Zebra bide batzuen azterketa.		
Justifikazioa	Zebra bide batzuk arriskutsuak dira. Kasu batzutan gidarien ikuspena ez dalako ona. Beste kasu batzuetan zebra bidea margotu barik egon arren sarri erabiltzen dalako.		
Arduraduna	Obra zuzendaria		
Inplikaturako udal sailak	Udaltzaingoa. Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila. Zerbitzu Saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	<p>Bai.</p> <p>Kasu batzutan zebra bideen kokapena mugitu beharra ikusten da gidarien ikuspena hobetzeko: Ondarraburuko aldatzan dagoena eta Artieda tar Iñigo kalea (Pitxin Pitxien), Esparru kalea 1 (txalintxu).</p> <p>Beste kasu batzuetan zebra bidean zoladura erregularra jartzea proposatzen da. Esaterako Kurtzio sarreran dagoena.</p>		
Jardueraren adierazleak	<p>Azterketa bat egitea.</p> <p>Zebra bideen aldaketa kopurua</p>		
Betetze maila			

❖ 2.3.3. Jarduera: Semaforoen kokapena hobetzea

Deskribapena	Ispizua tar Segundo 2 (Karin kara)ko semaforoa ren azterketa.		
Justifikazioa	Semaforo honen kokapena ez da egokia, espaloi estu baten kokatuta dago. Gune hori aztertzea proposatzen da: semaforo eta zebra bidea lekuz aldatu, zebra bidea zabalagoa egin edota espaloiak zabaltzeko beste neurri batzuk hartu (trafikoa norabide batean bakarrik jarri, ...).		
Arduraduna	Obra zuzendaria		
Inplikaturako udal sailak	Udaltzaingoa. Zerbitzu Saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Bai. Ispizua tar Segundo 2 (Karin kara)ko semaforoa.		
Jardueraren adierazleak	Azterketa bat egitea.		
Betetze maila			

❖ 2.3.4. Jarduera: Aparkaleku erreserbatuak gehitzea

Deskribapena	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Pertsona nagusiek gehien erabiltzen duten eraikin eta espazio publiko inguruetatik aparkaleku erreserbatu gehiago jartzea. ✓ Aparkalekuek seinale bertikala eukiko dute. 		
Justifikazioa	Anbulategian aparkatzeko arazoak egoten dira eta pertsona nagusien zaintzaileentzako ez da erraza modu seguru batean batetik bestera mugitzen laguntzea.		
Arduraduna	Obra zuzendaria		
Inplikaturako udal sailak	Udaltzaingoa. Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila (urbanizazio barrietan). Zerbitzu Saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Bai. Batez ere anbulategi inguruan.		
Jardueraren adierazleak	Aparkaleku erreserbatuen kopurua areagotzea. Seinale bertikal kopurua areagotzea.		
Betetze maila			

III. EREMUA: ETXEBIZITZA

HELBURUAK

- Etxebizitza irisgarri eta seguru bat izatea.

3.1. ILDOA. ETXEBIZITZA EGOKITZEN LAGUNTZEKO NEURRIAK

- ❖ 3.1.1. Jarduera: Etxebizitzak egokitzeko laguntzen informazioa zabaldu

Deskribapena	Pertsona nagusientzako gida/zerbitzu bat sortzea. Gida horretan etxebizitza egokitzeko aholku, diru-laguntza eta bestelako informazioa batuko da. Gida hori batez ere auzoetan edo ahulezi egoeran dauden pertsona nagusien artean zabalduko da.		
Justifikazioa	Gaur egun etxebizitza publikoaren diseinuan moldagarritasun irizpideak betetzen dira pertsona nagusien beharrezanetara egokitzeko. Baina pertsona nagusi gehienek ez dute etxebizitza egokituta menpekotasun egoera batetarako eta askok ez dute ezagutzen etxebizitza egokitzeko laguntzak. Auzoetan bizi direnek gainera ez dute jabeen elkarte bat informazioa elkar trukatzeko.		
Arduraduna	Berualako zuzendaria		
Inplikaturako udal sailak	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua. Berhaz.		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Ez.		
Jardueraren adierazleak	Gida/zerbitzu bat garatzea		
Betetze maila			

IV. EREMUA: SAREAK ETA GIZARTE-LAGUNTZA

HELBURUAK

- Pertsona nagusiek babes sareak izatea.

4.1.ILDOA. GIZARTE SAREAK INDARTU

- ❖ 4.1.1. Jarduera: Herriko elkarteak babestu.

Deskribapena	Herrian dagozan elkarte ezberdinei laguntzen jarraitzea.		
Justifikazioa	Herrian bazkide asko dituzten elkarte ezberdinak dagoz: Erroxape edo Demiku Elkartea, esate baterako. Elkarte honeek gizarte babes handia egiten dutenez, beharrezkoa ikusten da elkarte honei laguntzen jarraitzea. Tramitazioak egiten lagundu, antolatzen duten ekitaldien publizitatea egin, azpiegitura eta laguntza ekonomikoa.		
Arduraduna	Kulturako teknikaria		
Inplikaturako udal sailak	Kultura eta Hezkuntza Saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza			
Jardueraren adierazleak	Elkarteeak babesteko neurri kopurua		
Betetze maila			

❖ 4.1.2. Jarduera: Elkartasunean sentsibilizatzea

Deskribapena	<p>Menpekotasun egoeran dauden pertsona nagusiak ondo hartzea.</p> <p>Herritar guztiak menpekotasun egoeran dauden pertsona nagusiak ez baztertzeko sentsibilizatzea.</p> <p>Horretarako herrian gida bat zabaldu eta hitzaldi bat emongo da.</p>		
Justifikazioa			
Arduraduna	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko zuzendaria		
Inplikaturako udal sailak	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza			
Jardueraren adierazleak	<p>Elkartasunean sentsibilizatzeko hitzaldi bat</p> <p>Gida zabaltzea</p>		
Betetze maila			

- ❖ 4.1.3. Jarduera: Toki zarratu bat eukitzea menpekotasun edo hauskortasun egoeran dauden pertsona nagusientzat.

Deskribapena	Gizarte eta kultura etxean dagoen "Nagusien Txokoa" astelehenetik barikura goizetan (libre dagoen ordutegietan) menpekotasuna edo hauskortasun egoeran dauden pertsona nagusiek bertan egoteko aukera izango dute.		
Justifikazioa			
Arduraduna	Kulturako teknikaria		
Inplikaturako udal sailak	Kultura eta Hezkuntza Saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza			
Jardueraren adierazleak	Astelehenetik barikura goizetan "Nagusien Txokoa" erabiltzeko aukera izatea.		
Betetze maila			

❖ 4.1.4. Jarduera: Gertuko merkataritza pertsona nagusiekiko babes modura.

Deskribapena	Berton elkarteari Euskadi lagunkoiak bultzatutako "Establezimendu lagunkoia" programari buruz informatzea.		
Justifikazioa	<p>Ekimen honen helburua establezimenduak lagunkoiagoak izan daitezen lortzea da, eta toki horiek pertsona nagusien beharretara egokitzeko prozesuan aurrera egitea, pertsona nagusiek bizi diren ingurunean ahalik eta modurik autonomoenean bizitzen jarrai dezaten eta ongizate hobea izan dezaten.</p> <p>Gainera diagnostiko fasean agertutako proposamenak aurkezteko balioko dau, esate baterako: dendetako etxez etxeko banaketa zerbitzu aukera izateko diru kopuru gitxiago gastatu behar izatea.</p>		
Arduraduna	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatoa		
Inplikatutako udal sailak			
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza			
Jardueraren adierazleak	Berton elkartekoekin informazio jarduera.		
Betetze maila			

V. EREMUA: ENPLEGUA ETA PARTAIDETZA

HELBURUAK

- Pertsona nagusiak zahartze aktiboan sentsibilizatzea.
- Herrian zahartze aktiboa bultzatzea.

5.1.ILDOA. BERMEO, PERTSONA NAGUSIEKAZ HERRI LAGUNKOIA PROIEKTUA

- ❖ 5.1.1. Jarduera: Herri lagunkoia proiektua zabaldu

Deskribapena	Herri lagunkoia proiektua Bermeon duen garapenaren berri emon. Komunikabide ezberdinetan eta Bermeoko web orrialdean Herri lagunkoia proiektuaren garapenaren barri emongo da. 2018 urtean gainera etxez-etxe buzoiratuko da, hitzaldiak egingo dira eta pertsona nagusiek erabakiko dute ze beste neurri egin proiektua zabaltzeko (lehiaketa, txapak zabaldu, martxa bat antolatu, ...)		
Justifikazioa			
Arduraduna	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko zuzendaria		
Inplikaturako udal sailak	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Ez.		
Jardueraren adierazleak	Herri lagunkoia proiektua zabaltzeko ekintza kopurua.		
Betetze maila			

5.2.ILDOA. ZAHARTZE AKTIBOA BULTZATZEKO NEURRIAK

❖ 5.2.1. Jarduera: Zahartze aktiboan sentsibilizatzea

Deskribapena	Zahartze aktiboan sentsibilizatzeko hitzaldiak.		
Justifikazioa	<p>Zahartze mota ezberdinak dagoz. Zahartze aktiboaren helburua zahartze ona izatea da, hau da, gaixotzeko eta menpekotasuna edukitzeko probabilitate txikia, funtzionamendu fisiko eta psikologiko altua eta baita bizitzarekin konpromezu handia edukitzea.</p> <p>Diagnostikoaren arabera, Bermeon pertsona nagusi gazteek aktiboak izaten dira orokorrean baina pertsona nagusi nagusiak pasiboagoak izaten dira eta ez dute ekintza aktiboagoetan parte hartu nahi.</p> <p>Gauza asko dira zahartzean eragiten dutenak, esate baterako jarrera pertsonalak.</p> <p>Sarritan pasibotasunaren atzean adinaren inguruko aurreritxiak egoten dira.</p> <p>Hori dala eta, ondo zahartzen ikasteko zahartzeari buruzko pentsaera negatiboak alde batera itzi eta aurreritxiak aztertzea komeni da.</p>		
Arduraduna	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko zuzendaria		
Inplikaturako udal sailak	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Ez.		
Jardueraren adierazleak	Zahartze aktiboari buruzko hitzaldi kopurua.		
Betetze maila			

❖ 5.2.2. Jarduera: Menpekotasun edo hauskortasun egoeran dauden pertsonen aisialdia erraztea

Deskribapena	<p>Menpekotasun edo hauskortasun egoeran dauden pertsonen parte hartu ahal duten kultura eskaintzetan eta batez be musika astea eta holakoetan irisgarritasun neurriak gehitzea. Esate baterako arrapala bat jartzea eleizan.</p> <p>Ordaindu beharreko kultur ekintzetan, pertsona nagusiek, elbarrituek, gazteak eta langabetuak sarreraren prezioan %25eko deskontua dutenez, datu hori nabariago egin.</p> <p>“Bermeon, zer?” aldizkarian agertzen diren argazkien artean, argazkiren bat menpekotasuna duten pertsonak ere agertzea. Jai batzordean nagusientzako bereziki zuzendutako urteko ekitaldi kopurua areagotzea zainduko da.</p>		
Justifikazioa			
Arduraduna	Kulturako teknikaria		
Inplikaturako udal sailak	Kultura eta Hezkuntza Saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza			
Jardueraren adierazleak	<p>Kultur ekitaldietan irisgarritasun neurri kopurua.</p> <p>Deskontuei buruzko informazioa nabari egitea.</p> <p>Pertsona nagusientzako bereziki zuzendutako urteko ekitaldi kopurua</p>		
Betetze maila			

5.3.ILDOA. BOLUNTARIOTZA

❖ 5.3.1. Jarduera: Borondatezko lana egiten dutenei esker ona emon

Jarduera			
Deskribapena	Borondatezko lana egiten dutenei esker ona emoteko ekitaldia.		
Justifikazioa			
Arduraduna	Alkatetza		
Inplikaturako udal sailak			
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Ez.		
Jardueraren adierazleak	Ekitaldi bat		
Betetze maila			

5.4.ILDOA. PRESTAKUNTZA

❖ 5.4.1. Jarduera: Prestakuntza eskaintza babesten jarraitzea

Deskribapena	Elkarteek (Barrueta, Gurutze Gorria ...) antolatzen duten prestauntza eskaintzari zeharkako laguntza ematen jarraitzea bai azpiegiturari dagokionez eta baita ekonomikoki ere. Prestakuntza eskaintza hau zabaltzen ere lagunduko da.		
Justifikazioa			
Arduraduna	Kulturako teknikaria		
Inplikaturako udal sailak	Kultura eta Hezkuntza Saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza			
Jardueraren adierazleak	Udalerriko elkarte ezberdinei prestakuntza eskaintzarako emandako laguntza kopurua		
Betetze maila			

VI. EREMUA: ERRESPETUA ETA GIZARTERATZEA

HELBURUAK

- Pertsona nagusiak errespetuz tratatuak izatea.
- Pertsona nagusiak baztertuak ez izatea.

6.1.ILDOA. PERTSONA NAGUSIEKIKO ERRESPETUA BULTZATZEKO NEURRIAK

- ❖ 6.1.1. Jarduera: Pertsona nagusiei omenaldia.

Deskribapena	Pertsona nagusiei omenaldi bat egitea, udalerriko elkarteekin elkarlanean. Hori aprobetzatuz, musika ikuskizun bat eskaintzea, esate baterako pertsona nagusien nazioarteko egunean (urriak 1).		
Justifikazioa			
Arduraduna	Kulturako teknikaria		
Inplikaturako udal sailak	Kultura eta Hezkuntza Saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Ez.		
Jardueraren adierazleak	Omenaldi ekitaldia izatea.		
Betetze maila			

❖ 6.1.2. Jarduera: Belaunaldien arteko programak indartzea.

Deskribapena	Belaunaldien arteko lankidetzaren programak sustatzea, ez bakarrik umeekin, baizik eta gazteekin ere. Gazteek nagusiekiko tratua hobetzea. Programa herriko beste eskoletara ere zabaltzea.		
Justifikazioa			
Arduraduna	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko zuzendaria		
Inplikaturako udal sailak	Zaharren egoitza. Demiku Elkartea. Kultura. Ikastetxeak		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Ez.		
Jardueraren adierazleak	Belaunaldien arteko programa kopurua		
Betetze maila			

6.2.ILDOA. PERTSONA NAGUSIAK GIZARTEAN BARNE-HARTZEKO NEURRIAK.

❖ 6.2.1. Jarduera: Gizarte bazterketa sahiesteko laguntzak mantentzea

Deskribapena	Diru laguntzak emango zaizkie ohiko nahiz ezohiko gastu zehatz batzuei aurre egiteko adina baliabiderik ez duten pertsoneri, gizarte bazterketako egoerak saihesteko.		
Justifikazioa			
Arduraduna	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko zuzendaria		
Inplikaturako udal sailak	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Ez		
Jardueraren adierazleak	Gizarte bazterketa sahiesteko laguntza kopurua		
Betetze maila			

VII. KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA

HELBURUAK

- Udaletik datorren informazioa ulertu ahal izatea.
- IKT tresnak erabiltzen jakitea.

7.1.ILDOA. INFORMAZIOA HOBETO ZABALTZEKO NEURRIAK

- ❖ 7.1.1. Jarduera: Pertsona nagusientzako egitarau bateratu bat sortu eta zabaldu

Deskribapena	Urtean behin pertsona nagusiei bereziki zuzenduta dauden prestakuntza ikastaro eta tailerrei buruzko egitarau bat buzoneatzea. Udaleko Sail ezberdinek (Kzgunek, Kiroldegi, Kultura, Gizarte Ongizate...) antolatzen duten ekintzak danak bateratuta gida batean. Bestalde, herriko elkarte, herri lagunkoi proiektua eta beste gai interegarri batzuei buruzko informazioa eskaini. Egitaraua buzoietan sartzeaz gain, udaleko web orrialdean ere eskegiko da. Egitaraua urte hasieran bananduko denez, urte amaieretan prestatuko da hurrengo urte hasieran banatzeko.		
Justifikazioa	Pertsona nagusien arabera, ez dute informazioa hartzen.		
Arduraduna	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko zuzendaria		
Inplikaturako udal sailak	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua, Kultura eta Hezkuntza Saila, Kirol patronatua, Behargintza		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza			
Jardueraren adierazleak	Urtero egitarau bateratu bat zabalitzea.		
Betetze maila			

❖ 7.1.2. Jarduera: Elkarteen arteko komunikazioa hobetu.

Deskribapena	Topaketak antolatu, udalerriko elkarte ezberdinak euren artean ezagutza eta esperientziak partekatzeko.		
Justifikazioa	Elkarte ezberdinek interes bardinak ere eduki ahal dute baina gaur egun elkarte bakoitzak modu banandu batean funtzionatzen du. Elkar batzeak lana bat egitea erraztuko leuke		
Arduraduna	Kulturako teknikaria		
Inplikaturako udal sailak	Kultura eta Hezkuntza Saila		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Ez.		
Jardueraren adierazleak	Topaketa batzarrak egitea.		
Betetze maila			

7.2.ILDOA. INFORMAZIOA FORMATU LAGUNKOIAN IZATEKO NEURRIAK

❖ 7.2.1. Jarduera: Administrazio hizkuntza ulergarriagoa egiteko lanean jarraitzea

Deskribapena	Udaletik datorren informazio eta komunikazioa lagunkoia izatea. Pertsona nagusiekaz eta herritar guztiekaz komunikazio lagunkoia: Hizkuntza erraza, ulergarria, erraz irakurtzekoa eta ulertzekoa.		
Justifikazioa	Administrazioak darabilen hizkera ez da beti ulerterraza izaten eta Bermeoko Udalaren hizkuntza nagusia euskara izanik, adinekoen alfabetatze mailaren arabera, zailtasunak izan ohi dira testuak ulertzeko. Udala horren jakitun da eta zabalpen orokorra duten dokumentu eta jakinarazpenak (bandoak, hileko agenda...) egokitzeko eta hizkera ulerterrazean idazteko ahalegina egiten du.		
Arduraduna	Euskara Saila		
Inplikatutako udal sailak	Sail guztiak		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza			
Jardueraren adierazleak	Egokitutako dokumentu kopurua		
Betetze maila			

- ❖ 7.2.2. Jarduera: Administrazioaren testuen ulergarritasunari buruzko aurreiritziei aurre egin

Deskribapena	Aurreiritziei aurre egiteko lan egin.		
Justifikazioa	Sari pertsona nagusiek testu administratiboan aurrean ez ulertzearen ikara izaten dute, eta begiratu ere egin barik baztertu egiten dute, ulertuko ez dutelakoan. Bada, testu horiek pertsona nagusiekin lantzea onuragarri izan daiteke aurreiritzei aurre egiteko eta uste dutena baino gehiago ulertzen dutela ikusteko.		
Arduraduna	Euskera Saila		
Inplikatutako udal sailak	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza			
Jardueraren adierazleak	Landutako dokumentu kopurua		
Betetze maila			

❖ 7.2.3. Jarduera: Euskararen kultura sustatzeko programak ezagutzera eman

Deskribapena	Belaunaldien arteko kultur transmisioari indarra eman "Ipuinlapikoa" programaren bitartez.		
Justifikazioa	Pertsona nagusiak "Ipuinlapiko" programan parte hartu ahal izateko, programa ezagutzera eman.		
Arduraduna	Euskera Saila		
Inplikaturako udal sailak			
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza			
Jardueraren adierazleak	Ezagutzera emateko neurri kopurua		
Betetze maila			

7.3.ILDOA. ORDENAGAILUAK ETA INTERNETEN ERABILERA BULTZATZEKO NEURRIAK

- ❖ 7.3.1. Jarduera: IKTei buruzko prestakuntza programak ezagutzera eman.

Deskribapena	KZguneetan duten IKTei buruzko prestakuntza programak ezagutzera eman. Gurutz gorriak emoten dituen ikastaroei buruzko informazioa ere ezagutzera eman.		
Justifikazioa			
Arduraduna	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko zuzendaria		
Inplikaturako udal sailak	Behargintza.		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza			
Jardueraren adierazleak	IKT buruzko prestakuntza zabaltzeko neurri kopurua.		
Betetze maila			

VIII. GIZARTE ETA OSASUN ZERBITZUAK

HELBURUAK

- Gizarte eta osasun zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzea.
- Pertsona nagusiak euren etxean/ingurunean geratu ahal izatea.

8.1.ILDOA. ONDO ZAHARTZEKO NEURRIAK

- ❖ 8.1.1. Jarduera: Osasun heziketa programak bultzatzea

Deskribapena	Osakidetzako Osasun Zentroak eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailekoekin elkarlanean osasun heziketa programak antolatzen jarraitzea (esaterako "Adinekoak ez jausteko aholkuen tailerra")		
Justifikazioa			
Arduraduna	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko zuzendaria.		
Inplikatutako udal sailak	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua.		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Ez.		
Jardueraren adierazleak	Osasun heziketa programak izatea.		
Betetze maila			

❖ 8.1.2. Jarduera: Osasuna sustatzeko programak mantentzea

Deskribapena	<p>Udaleko sail ezberdinetatik antolatzen diran osasuna sustatzeko programak mantentzea (Kiroldegiko 3.adina, Gorputza Martxan, Burua Martxan, ...)</p> <p>“Bide osasuntsuak” ibilbideak ezagutzera ematea.</p>		
Justifikazioa	<p>Programa honeen helburu orokorra menpekotasuna ager dadila prebenitzea da.</p> <p>Jarduera fisikoa bizitza osoan zehar da onuragarria, baina pertsona nagusietan garrantzi berezia hartzen du. Zahartzeko prozesua prozesu naturala da, bizitzako etapa berri bat. Prozesu honetan zehar pertsonak zahartzuz doaz, eta aldaketa biologikoak ez ezik maila psikosozialean ere aldaketak jasango dituzte.</p> <p>Zahartzaroan jarduera fisikoak onura handiak ekar ditzake maila fisiko, psikologiko zein sozialean, baina jarduera fisikoak adin honetara egokitua izan beharko du. Eta horretan datza, hain zuzen, programa honeen garrantzia.</p> <p>Jarduera kognitiboetarako dagokienez, pertsona nagusi gehienek zahartzaro normal bat dute. Hala ere, entrenamendu kognitiboak, adinarekin zerikusia duen narriadura kognitiboaren zenbait aspektu lehengoratu ahal duela frogatu duen ebidentzia zientifikoa dago.</p> <p>Beraz bizi-kalitate ona eukitzeko eta beharizan sozial, afektibo eta adimen beharizanei erantzuteko, gaitasun kognitibo desbardinak sustatu eta trabatzen dira (esaterako, atentzioa, oroimena, orientazioa, etab.) estimulazio kognitibo programa mota honeetan.</p>		
Arduraduna	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko zuzendaria.		
Inplikaturako udal sailak	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua. Kirol Patronatua.		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza			

Jardueraren adierazleak	Osasuna sustatzeko programa kopurua mantentzea Bide osasuntsuak gida web orrialdean zabaltzea.
Betetze maila	

❖ 8.1.3. Jarduera: Menpekotasunak aurrera egitea atzeratzeko programak luzatzea

Deskribapena	<p>Estimulazio kognitibo tailer eskaintza mantentzea. Dagoeneko menpekotasun-egoeran dauden pertsonen artean, kasu honetan dementzia maila arinean daudenen artean, Psikoestimulazio tailerra gauzatuko da, gaixotasunak aurrera egitea atzeratzeko, eta, horrela, pertsona horiek ahalik eta denbora gehienez autonomoak izan daitezela lortzeko.</p> <p>Hainbat jardueraren bidez, pertsona bere ingurunean, denboran eta espazioan orientatzeko gaitasun kognitiboak lantzen dira, besteak beste, oroimena, orientazioa, hizkuntza, etab.</p>		
Justifikazioa	<p>Dementzia duten pertsonen zuzenduta erabiltzen den tratamendu ez-farmakologikoa da. Galera kognitiboa duten pertsonen beren buruari eta beren inguruneari buruzko informazioa estimulatuz, nahasmenari, orientaziorik ezari eta oroimen-galerei aurre egiteko esku-hartze terapeutikoa lantzen da.</p>		
Arduraduna	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko zuzendaria.		
Inplikaturako udal sailak	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua.		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza			
Jardueraren adierazleak	<p>Menpekotasunak aurrera egitea atzeratzeko programa kopurua mantentzea.</p> <p>Saioen iraupena luzatzea.</p>		
Betetze maila			

8.2.ILDOA. IRISGARRITASUNA HOBETZEKO NEURRIAK

- ❖ 8.2.1. Jarduera: Gizarte zerbitzuetako instalazioen irisgarritasuna hobetzea.

Deskribapena	Gizarte zerbitzuetako instalazioen irisgarritasuna hobetzeko jarduerak, oztopo arkitektonikorik egon ez dadin. Desgaitasun edo mugikortasun arazoak dituzten pertsonak erraz sartu ahal daitezten.		
Justifikazioa			
Arduraduna	Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila		
Inplikaturako udal sailak			
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza	Bai. Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua.		
Jardueraren adierazleak	Irisgarritasun esku-hartze kopurua		
Betetze maila			

8.3.ILDOA. ZERBITZU ESKAINTZA HOBETZEKO NEURRIAK

- ❖ 8.3.1. Jarduera: Zaintzaile senitartekoei zuzendutako laguntza programak luzatu eta ezagutzera eman.

Deskribapena	<p>Menpekotasun egoeran daudenen zaintzaile senitartekoei zuzendutako prestakuntza-ikastaro eta laguntza psikologiko programak mantendu eta ezagutzera eman.</p> <p>Prestakuntzari dagokionez, menpekotasunak eragiten dituen arazo nagusien inguruan edo menpekotasunaren zaintzarekin lotutako gai zehatzen inguruan prestakuntza eta informazioa ematea da. Prestakuntzako ekintzen bidez zaintzarako behar dituzten trebetasun eta estrategien inguruko entrenamendua eskaintzen zaie zaintzaileei. Zerbitzu honekin informazioa, ebaluazioa, orientazioa eta aholkularitza eskaintzen da zaintzari lotutako arlo ezberdinetan.</p> <p>Laguntza psikologiko taldearen bidez senideek egoera berdintsuan dauden beste pertsonekin hitz egiteko eta harremanak izateko aukera izaten dute. Horrela, elkarren arteko laguntza eta babesa senti dezakete. Hamabostean behin zaintzaileak psikologoarekin biltzeko aukera eskaintzen du baliabide honek.</p>
Justifikazioa	<p>Programa bi honeekin zaintzaileen bizi kalitatea hobetu gura da.</p> <p>Familiek senitartekoak diagnostikoa jasotzen dutenean, ez dute informazio askorik izaten. Ildo horretatik, familiari zuzendutako prestakuntza-ikastaroek egoera honi aurre egiteko alor garrantzitsuenak ezagutzeko aukera eskaintzen dute.</p> <p>Ikerketen arabera, etxean zaintzen duten familiarrek arazo emozional handiak pairatzen dituzte: antsietate eta depresio maila altuak adierazten dituzte, tentsio handia izaten dute eta</p>

	<p>abar. Ildo horretatik, menpekotasuna duen familiar baten zaintza estres kronikoaren adierazle nagusizat hartzen da. Zaintzailea sarri askotan, zama handiarekin izaten da, beraz "zaintzailea zaintzea" garrantzitsua da ikuspuntu horretatik eguneroko jardueri hobe aurre egiteko.</p> <p>Horrelako egoeran dauden pertsonak askotan laguntza psikologikoa behar izaten dute menpekotasuna duen pertsonen zaintza-prozesuan laguntzeko. Tratamendu psikologiko saioak eskaintzen dira egoera berriak eta aldakorak hobeto gainditzeko laguntzeko, eta estrés- eta egonezin-sentimenduak maneiatzeko helburuarekin.</p>		
Arduraduna	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko zuzendaria.		
Inplikaturako udal sailak	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua.		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza			
Jardueraren adierazleak	<p>Zaintzaile senitartekoei zuzendutako laguntza programa kopurua mantentzea</p> <p>Saioen iraupena luzatzea</p>		
Betetze maila			

❖ 8.3.2. Jarduera: Etxez etxeko laguntza zerbitzua mantendu

Deskribapena	<p>Etxez Etxeko Zerbitzua, zerbitzu komunitario eta integrala da, osasun psikikoa, fisikoa eta gizarte ongizatearen arloan zailtasunak dituzten eta bakarrik bizi diren pertsonen zein familiei zuzenduta dago, beraien familia eta gizarte ingurunean bizitzen jarraitzeko behar duten autonomia sustatuz.</p> <p>Etxez etxeko zerbitzuak onuradunari laguntza eman behar dio, berak bakarrik edo familiaren beharreko laguntzarekin egin ez ditzakeen jarduerak egiteko, bere gaitasun propioen garapena suspertuz eta bere menpekotasunaren maila handitu gabe.</p> <p>Zerbitzuak eskaintzen dituen funtzioak batez ere etxeko lanak egiteari eta herritarrari eta norberaren atentzio pertsonalari dagozkie.</p> <p>Etxez etxeko laguntza zerbitzua mantendu egingo da.</p>		
Justifikazioa	<p>Azken urtean etxez etxeko zerbitzuan 72 bezeroei arreta eman zaie.</p> <p>Bezeroen artean, %70ak menpekotasuna dute.</p>		
Arduraduna	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko zuzendaria.		
Inplikaturako udal sailak	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua.		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza			
Jardueraren adierazleak	Etxez etxeko laguntza zerbitzuko bezero kopurua.		
Betetze maila			

❖ 8.3.3. Jarduera: Eguneko Zentroak eskainitako zerbitzua ezagutzera eman

Deskribapena	Egoitz Alaieko eguneko zentroko arduradunekin berba egin zerbitzu hori ematen badute, herrian zabaltzeko proposatuz (adibidez jaietako programa barruan). Egingo dan egitarau bateratuan honi buruzko informazioa zabaltzea aztertuko da.		
Justifikazioa	Diagnostikoan agertutako beharizanak hurrengoak izan ziren: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Asteburu eta jai egunetan erabili ahal izatea. ✓ Egutegi malgutasun handiagoa eskaintzea. Egoitz Alaieko eguneko zentroan asteburu eta jai egunetan ere zerbitzua emoten dute eta egutegi malgutasun handiagoa eskaintzen dute baina herritar batzuek ez dakite hori.		
Arduraduna	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua		
Inplikaturako udal sailak			
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza			
Jardueraren adierazleak	Diagnostikoan agertutako beharizanak eguneko zentruko arduradunei jakinarazi		
Betetze maila			

❖ 8.3.4. Jarduera: Zaharren egoitzak eskainitako zerbitzuak mantendu

Deskribapena	<p>Zaharren egoitzako erabiltzaileei bizi kalitatea hobetzea helburutzat duten programa eta zerbitzuak eskaintzea.</p> <p>Bermeoko Sancti Spiritus udal egoitzak 67 plaza ditu eta batez ere, gizarte arloko beharrianak, beharrian fisikoak, psikologikoak edota ekonomikoak dituzten Bermeoko adineko pertsonentzat, mendekotasuna duten zein ez dutenentzat arreta eskaintzen du.</p>		
Justifikazioa	<p>Bezero gehienak menpekotasun maila altua dute, %91ak gradu II eta III dute eta 81-90 urte tartean daude.</p> <p>Egoitzan banakako arreta integrala eta gizatiarra eskaintzen da, erabiltzaileen gizarte eta osasun ongizatea ziurtatzeko, eta egoiliarren autonomia, duintasuna eta garapen pertsonala bermatzeko.</p>		
Arduraduna	Zaharren egoitzako zuzendaria		
Inplikaturako udal sailak			
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza			
Jardueraren adierazleak	Zaharren egoitzak eskainitako zerbitzu kopurua		
Betetze maila			

8.4.ILDOA. LARRIALDI KASUETAN ARRETA HOBETZEKO NEURRIAK

❖ 8.4.1. Jarduera: Gizarte larrialdi kasuetan arreta mantentzea

Deskribapena	Gizarte larrialdi kasuetan arreta mantentzea		
Justifikazioa			
Arduraduna	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko zuzendaria.		
Inplikaturako udal sailak	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua.		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza			
Jardueraren adierazleak	Arreta kopurua		
Betetze maila			

8.5.ILDOA. EGOERA AHULEAN DAUDEN PERTSONA NAGUSIEN JARRAIPENA

❖ 8.5.1. Jarduera: Egoera ahulean dauden pertsonen behaketa

Deskribapena	2018 urtean osakidetzarekin elkarlanean protokolo sozio-sanitarioa martxan jarriko da.		
Justifikazioa			
Arduraduna	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko zuzendaria.		
Inplikaturako udal sailak	Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua.		
Kronograma	2018	2019	2020
Kokapen zehatza			
Jardueraren adierazleak	Arreta kopurua		
Betetze maila			